

Lege gizonek behar duten hiztegi berezia

Jaun agurgarriak:

Joan den hileko batzar egunean Antonio Arrue euskaltzain eta lege gizon jaunak hitz zerrenda bat ekarri zidan beren ofizioko gizonek maizenik erabili behar izaten dituzten hitzez osatua. Zerrenda hau ez da luzea. «Derecho privado» deritzaion sailekoak dira gehienbat hitzok. Berak nahi luke hitz hauen euskal itzulpena edo euskal ordaina guk eskeintzea.

Nahiz eta zerrenda luzea ez izan, sail berezi bateko hitzak dira, eta ez dut uste lan hau arinki eta nolana egin daitekeanik. Alde batetik, euskeraz ongi jakin behar da, eta bestetik, lege gauzatan jantzia egon. Euskera lege gauzatan gutxi erabilia izan bada ere, agian badira zenbait hitz eremu hontakoak, izkribu zaharretarik, euskal foruetairik edota herriaren ahotik jaso eta kontuan eduki beharko lirakenak.

Nolana ere, zailtxoa da ene ustez lan hau. Baditu bere oztopo eta eragozpideak, alegia. Batek bakarrik gogoak ematen dizkion hitzak jarritz edo zernahi hitz asmatuz, ez dut uste gauza onik egingo gendukeanik.

Beste aldetik, honelako eskabideei Euskaltzaindiak ezin die muzinik egin. Bere ahalen neurrian erantzutera eta kobru ematera beharturik dela uste dut.

Zer egin, bada? Bidea pixka bat luzexeagoa izanarren, uste dut lehenbizikorik galderak egin beharko direla gauza hoietan adituak diren gizonen artean. Haien erantzunak jaso ondoren, Mitxelena jaunari bidaliko zaizkio, hark begiratu bat eman eta bere iritzia ager dezan.

Idazkari ordea gertu dago hitzen lista gizon aditu hoiei bidali,

haier erantzunak jaso eta era hortara datoak eta behar den dokumentazioa biltzera.

Hemen, bada, zein gizon galdetuak izango diren ikusi beharko dugu lehenik. Eta jaun hoiak emandako erantzunak jasotakoan, azken hautapena egiteko batzordetxo bat jarri, gero.

Honako jaun hauek iruditu zaizkigu egokiak galdetuak izateko: *Antonio Arrue*, *Jose Maria Lojendio* eta *Jesus Oleaga*, lege gizonak eta Euskaltzaindikoak diren aldetik. Eta hoietaz gainera, lankide bezala, horrako beste hauek: *Gregorio Monreal*, Deustuko Unibertsidadean Mañarikua jaunaren Derecho Catedrako Irakasle laguntzaillea; *Julio Caro Baroja*, Euskalerriko kondaira zaharrean jakitun den aldetik. *Carlos Santamaria*, hiztegi lanetan duen trebetasun eta esperientziagatik. *Abel Muniategi*, lege gizona eta idazlea. *Patxi Zabaleta*, Príncipe de Viana-ren euskal sailekoa, idazlea, Derecho eta Filosofía y Letras karrera oraintxe bukatzen duena.

Mugaz beste aldekoen bat edo bat baino gehiago ere sartu behar litzake, ahal izatera. Zein liraken egoki, hango euskaltzainek esan dezaigukete (1).

Izen hauek proposamendu gisa ematen dira. Baina hoiere ordez edo hoietaz gainera norbaitek beste izenik proposatzen baldin badu, entzuna izango dela esan beharrik ez dago.

Jaun hoiere erantzunak jaso eta metatu ondoren, Miexelenari bidaliko zaizkiola esan dugu, orientaziozko iritzia eman dezan. Eta gero hitzen azken hautatzea batzorde txiki batek egingo duela. Beraz, delako batzorde hori ere orain jarri beharra dago. Izen hauek proposatzen dira hortarako: *Luis Mitxelena*, hiztegi gauzatan duen maisutasunagatik. *Antonio Arrue*, lege gauzen esparruko bere jakitateagatik. *Jean Haritschelhar*, beste aldekoen ordezkari bezala. Eta *Jose Luis Lizundia*, erakunde gauzatan duen trebetasunagatik. Mitxelena jauna izango da buru eta Lizundia jauna idazkaria.

Gorago esan dudana bezala, oraingoz itzuli behar diren hitzok Derecho Privadokoak dira gehienbat. Beharbada lan hau gero Derechoaren beste eremuetara ere zabaldu ahal izango da. Baina hori Batzordeak berak ikusiko du.

L. Villasante

Donostia, 26-5-1972.

(1) *Itzaina* eta *Haritschelhar* onartu ziren.